

## **HAURRESKOLAK PARTZUERGOKO ZUZENDARITZA BATZORDEKO KIDEEI zuzendua**

### **HAURRESKOLAK PARTZUERGOKO ZUZENDARITZA BATZORDEARI STEE-EILAS sindikatuak luzatutako eskaerak:**

**1.- MATRIKULAZIOA:** Orain dagoen matrikulazio sistema mantendu, ikasturtean 3 aldiz matrikulazio epeak irekiz. Dena den zenbait berrikuntza gehitzea eskatzen dugu:

- **Sehaska geletan eta taldekatze geletan**, matrikulazioa **%80ra iritsi arte** umeak urtean zehar matrikulatzeko aukera izatea, urtean zehar dauden matrikulazio garai ofizialetatik kanpo.
- **Urte beteko geletan** plaza hutsak dauden bitartean familiek **izena emateko aukera** izatea **inongo mugarik gabe**.
- **Urte beteko geletako matrikulazioa otsailean egiteko aukera** ematea matrikulazio orokorrarekin batera publikoak eta konzertatuak diren ikastetxeetako epe orokorrekin batera. Une honetan Haurreskolak partzuergoa desabantailan dago sare konzertatuarekiko, urte bete dituzten umeak otsailean matrikulatzeko aukera dutelako. Publikoari bultzada eman nahi badiogu behintzat beharrezkoa ikusten dugu neurri hau aplikatzea.
- **Haurreskolak eskola ibilbide barruan sartzea** eskatzen dugu, familia askoren ezinegona baita beraien seme alaben eskolarizazioan matrikulazio prozesu desberdinetan parte hartu beharra izatea.

**2.- KUOTAK:** Egungo egoera sozio politikoa kontuan hartuz kuoten sistema osoa berrikustea eskatzen dugu, bai ekonomikoki baita ordutegiari begira ere.

- Haur eskola **doakoa izatea**. Aukera honi ezezkoa eman ezker, errenta aitorenaren arabera kobratzea, baremo batzuk zehaztuz familien eros ahalmena kontuan izanda. Dena den prezio orokorrak merkeago izan behar dute.

ERNEI Mezu honek badu bere hartzailea eta isilpeko edo pribilegiatua den informazioa izan dezake. Okerreko helbidera heldu bada eman abisua igorleari, korreo honi erantzunez, ezin baituzu erabili. Hau guztia abenduaren 13ko 15/99 Datuen Protekzio Lege Organikoarekin eta alda edo gara dezakeen beste edozein ararekin bat dator.  
*¡ATENCIÓN! Este mensaje contiene información privilegiada o confidencial a la que sólo tiene derecho a acceder el destinatario, de conformidad con la Ley Orgánica 15/99 de 13 de Diciembre de Protección de Datos de Carácter Personal y cuanto norma la desarrolle o modifique. Si lo recibe por error le recordamos que no puede hacer uso de la información y que se ponga en contacto con el remitente.*



E-mail hau inprimatu baino lehen egiaztatu beharrezkoa bada.  
Antes de imprimir este e-mail piense bien si es necesario hacerlo.

#### ARABA

Eulogio Serdán, 5 (behea)  
TF: 945 14 11 04 Faxa: 945 14 43 02  
araba@stee-eilas.org

#### BIZKAIA

Nikolas Alkorta, 3 (Zabalburu)  
TF: 944 10 02 98 Faxa: 7944 10 13 60  
bizkaia@stee-eilas.org

#### GIPUZKOA

Baso-biki, 30-34 (atzealdea)  
TF: 943 46 60 00 Faxa: 943 45 36 27  
gipuzkoa@stee-eilas.org

#### NAFARROA

Descabros, 72 (behea)  
TF: 948 21 23 55 Fax: 948 22 97 90  
nafarroa@stee-eilas.org

- **Haurreskola txikietan**, 3 ume dituztenean irekita mantentze aldera 7 orduko zerbitzua besterik ez zaie eskaintzen eta 8 orduko tarte ordaintzen dute. **Familia hauei kuota egokitzea eskatzen dugu.**
- Aurreko ikasturtean ezarri zen **matrikulazio garaiko aurreordainketa bertan behera uztea** eskatzen dugu. Enpresak lanaren antolamendurako onuragarria zela argudiatuz saldu zigun, beti kontra egon garen neurri hau. Guztiz kontra jarraitzen dugu egoten neurri honen aurrean, entitate publikoa garen heinean bidegabea dela deritzogu.
- Era berean, pasa den ikasturtean egon zen **kuota igoera bertan behera uztea** (%5) ere eskatzen dugu.
- Orain arte ikasturtean zehar **bajan emandako haurrak** sei hilabete baino lehenago matrikulatu nahi izanez gero, **hilabete guztiak ordaindu** behar dituzte. Neurri hau **bertan behera uztea** eskatzen dugu lekuz kanpoko baita egoera sozioekonomikoaren aurrean eta baita publikotasunaren funtsari begira.
- **3 kuota eskaintzea** eskatzen dugu: **4 ordukoa, 6 ordukoa eta 8 ordukoa**, betiere prezioak egungo egoerara egokituz kantitateetan eta baita proportzionaltasunean ere.

### 3.- BEKAK:

- **Haurreskoletako beka sistema publikoarekin parekatzea** eskatzen dugu. Bertako araudia bereganatuz, deialdia eta metodologia berdina izanez.

### 4.- PUBLIZITATEA:

- Haurreskolak partzuergoak, **matrikulazio kanpainen publizitate eraginkorra egitea hedabideetan** (telebistan, irratan, sare sozialetan...).
- **Udaletxeei**, matrikulazio garaian **familiei eskutitz bidez informazioa luzatzeko konpromisoa hartzeko eskatzea** (iaz egin zen bezala).

Gasteizen, 2013ko urriaren 17an.  
**STEE-EILAS sindikatua**

ERNEI Mezu honek badu bere hartzailera eta isilpeko edo pribilegiatua den informazioa izan dezake. Okerreko helbidera heldu bada eman abisua igorleari, korreo honi erantzunez, ezin baituzu erabili. Hau guztia abenduaren 13ko 15/99 Datuen Protekzio Lege Organikoarekin eta alda edo gara dezakeen beste edozein ararekin bat dator.  
*¡ATENCIÓN! Este mensaje contiene información privilegiada o confidencial a la que sólo tiene derecho a acceder el destinatario, de conformidad con la Ley Orgánica 15/99 de 13 de Diciembre de Protección de Datos de Carácter Personal y cuanto norma la desarrolle o modifique. Si lo recibe por error le recordamos que no puede hacer uso de la información y que se ponga en contacto con el remitente.*



E-mail hau inprimatu baino lehen egiaztatu beharrezkoa bada.  
Antes de imprimir este e-mail piense bien si es necesario hacerlo.

ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	NAFARROA
Eulogio Serdán, 5 (behea) TF: 945 14 11 04 Faxa: 945 14 43 02 araba@stee-eilas.org	Nikolas Alkorta, 3 (Zabalburu) TF: 944 10 02 98 Faxa: 7944 10 13 60 bizkaia@stee-eilas.org	Baso-txiki, 30-34 (atzealdea) TF: 943 46 60 00 Faxa: 943 45 36 27 gipuzkoa@stee-eilas.org	Descabros, 72 (behea) TF: 948 21 23 55 Fax: 948 22 97 90 nafarroa@stee-eilas.org
EHU-UPV Araba 945013397 stee-eilas.ara@ehu.es	EHU-UPV Bizkaia 946012435 stee-eilas.biz@ehu.es	EHU-UPV Gipuzkoa 943018436 stee-eilas.gip@ehu.es	